

MIGUEL INDURAIN, TXAPELDUN


«Nafarra, oi Nafarra, Euskadi leena
ederra zen ametsa zure erregena».

Amets eder ori ixte egi biurtu jaku. Miguel Indurain dogu txirrindularien errege. Erlojuaren aurkako probetan ez dauko parekorik. Aldapak igoten onenekin paretsu. Ta aldapak jaisten azkarrena. Tourmalet jaisten ikusita, guztion barrera zirraraz unkituta geratu jakun. Txirrindularirik mundialena dogunik ezin ukatu. Indurainen «turbo» martxan jarten danian, ez dago zer eginik.

Bera dogu Frantziako Tour andia irabazi dauan txapeldun jasoena. 1'88 alturako mutil lerdetik ez dau karrera famatu onek iñoiz ezagutu. Ta Tour ez da Burgosko itzulia edo Euskal Bizikleta. Ezta Españako Vuelta edo Italiako Giroa be. Tour Tour da. «Lehenengo Jaungoikua eta gero santuak», Jose Miguel Etxebarriren ezpanetan, grafikoki esanda.

Munduko karrerarik zailena eta inportanteena da. Ta karrera orretan, Miguel Indurainek austuta itxi ditu beste guztiak. Fignon frantsesa, amaika minutura. Lemond amerikarra, amairu minutura eta Delgado segobiarra, ogeira. Ta gure Marino Lejarreta, ordu bat eta amazortzi minutura. Ori bai badala markak ondutzea. Guztiak birrindu ditu nafarrak.

64. belaunaldiko txapeldunak baztertu ditue 60. belaunaldikoak. Txirrindulari munduan, iruzar barri agertu dira disdiz: Bugno italiarra, Breuckink holandarra eta Indurain nafarra. Oneen aurrean, Delgado-ren eta Fignonon eta Lemondenni zarrak moteltzen doaz. Betiko



itzali ez badira be, besteen gerizpean geratu dira.

Ori bai! 64ko belaunaldiko txapeldunak ez daukee 60ko txapeldun zarren martxarik eta piperrik. Fignonon 'jenio' burrukalari eta bortitzak, ez dauko ze ikusirik Breuckinken ekoloji amets goxoekin. Ezta Lemond amerikarraren adoreak eta irriparre umoretsuak be, Bugnonen goibeltasunaz eta tristeziaz. Ta aipatzekoa da, Perikoren xarma eta sinpatia alde batetik, eta Miguelen seriotasuna eta sosegua bestetik. Or dago Claudio Chiappuci be. Baina, au aparteko txoria dogu. Ta gainera, ez da eltzen txapeldun orreen mailara. 64ko txapeldunei «sarraski instintu» ori falta ei jake karrerak irabazteko. Ori barik be, makina bat irabazten dabez...

Indurainen izakerari eta bere lan egiteko tankerari begiratu ezker, bere zainetan euskal-odola deroanik, ezin ukatu. Emondako berbeari balio andia erasten dautson gizon patxadatsua dogu. Ez da bat ere teatzalea. Bizikleta gainean, gauza zaillak oso errez egiten dabezala, dirudi. Itz-jario gitxiakoa, baina sakona bere gogoeta eta iardunetan. «Ni neu oso ixille naz, nire lurraldeko jentearen antzera naiko odol-otza. Landarik landa eta basorik baso, bakarrik pasiatzea atsegin jat». (Mirour du Tour 91, p. 101).


Bada beste euskaldun bat be, «in illo tempore», Frantziako itzulia irabazi euskuna. Bere izena Roger Lapébie, Baionatar onek 1937ko Tourra eskuratu eban.

Milla esker

Milla esker kristau umilla eta fiña zaralako. Bartali, Coppi, Mersck eta beste anbat txapeldun andien antzera, kristau-fedearen paregabeko balioak bizitzen, alegintzen zara. Maillot oria eta lora txorta Andra Mariari eskeini dautsazuz. Karmengo Amaren Eskapularioa, gau eta egun, aldean daroazu. Eta zure otoitzik ederrena, domekero Eukaristian Jaungoikuari eskerrak emotea dala, nonai erakusten dozu.

Milla esker, sakrifizioz eta esfortsuz, entrenamenduetan egiñalak egiñez, txapeldun izatera eldu zaralako. Gazte eziketari diardugunok, badakigu lar ondo, zenbat gazte «pasotismo» ustelez, lurra jota bizi dirala. Asko eta asko drogeaz edo alkoholaz edo lizunkerik gozamen basatiaz edo konpromisu ezaz izurrauta noraezean dabiz. Ta zuk, mundu guztiaren aurrean, erakutsi dozu, gaur be gazteak, elburu ederrak lortu leikezela lanari ekiñez, iraupenez, borondate iraunkorrez eta norbere bizitza arriskuratu. Aize freskua eta ilusio garbiak dakazuz gazte mundura!

Milla esker, zeure izate otzana gaitik. Urteotan disziplinaz ekipoan lan egiten ikasi izan dozu. Zeure ekipoako direktorearen esanetara egon ziñalako, ez zenduan iaz beste Tour bat lortu. Zure pentsa-moldean, eziñezkoak dira ekipo berean, esaterako, Bahamontesen eta Loroñoren arteko burrukak edo Hinaulten eta



Lemonden arteko matrakak. Olakorik ez da gertatu zu eta Perikoren artean. Biori esker, ziklismoa beste zibilizazio barri baterantz doala dirudi.

Milla esker, historian zear politikuak egindako frontera eta mugen gainetik zeure burua ikusten dakizulako. Gogaituta eta iguinduta bizi gara super-español lerdo eta itsuekin. Baita super-abetzale setati eta amorratuekin be. Biotz zabaltasun ori eskertzekoa da.

Milla esker, txirrindulari zaletuei be. Bide ertzetan orduetan ziklisten zain. Ez da euren artean burrukarik ez izkanbillarik sortzen. Ziklista guztientzat ditue euren animuak eta txaloak. Etxekoentzat eta atzerri-tarrentzat, lenengoentzat eta azkenengoentzat. Joan futbol

zelai batera. Ango aserreak eta biraoak eta txilioak ez daukee amairik. Futbol zaletuen arteko zatarkeriak eta txarrikeriak ikusi, eta txirrindulari zaletuen arteko gizalegetasuna eta jentiltasuna ikusi! Bi mundu ditugunik, ezin ukatu.

«Nafarra, oi Nafarra...

Arrosa bat urrezko zazpi ostokoa
errege aur baten neurri betekoa
edozein baratzean ezin sortuzkoa
zurean zen loratu batasun gogoa»

Andoni Olea